

ARRASATEKO UDAL-BATZARI MOZIO PROPOSAMENA Justizia eta Memoriaren aldeko Udalen Sarea

2017ko Martxoaren 7an Udal-batzak diktadura frankistak 1936ko Uztailetik aurrera eragin zituen krimenen erantzuleen aurka kereila kriminalak jartzeko onartutako Erabakiari lotuta, Arrasateko Udalak honako hau erabakitzen du:

XEDAPENA

Udalen arteko solidaritatea eta lokarri kolaboratzaileak sartzeko asmoz inpunitatearekin amaitzeko -diktaduraren biktimei soilik ez, baizik eta gizarte osoari ukitzen diona- gure Udalak 2016ko Urrian Iruñean hainbat Udalek sinatutako Agiriarekin bat egiten du, Xedapen honi erantsia doana, eta sortutako *Justizia eta Memoriaren aldeko Udalen Sarearen* partaide izatea erabakitzen du, botere publikoek eta legeek, nahiz garatuko diren politikek, Nazio Batuetako Giza Eskubideen erakunde internazionalak Estatu Espainiarrari egindako gomendioak bete ditzaten.

Gure Udalak, frankismoaren diktadurak eragindako gizateriaren aurkako krimen guztiei buruz Justizia bultzatuaz biktimei dagozkien eskubideek bermatzeko hartu duen engaiamendua medio, Giza Eskubideen aldeko Nazioarteko Eskubideetatik datozen betebeharrak guztiak bereganatzen ditu. Halaber, aipatu Udalen Sarearen funtsezko printzipioa bereganatzen du, hots, 2014ko Uztailaren 22an Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluan Kontalari Bereziak aurkeztu zuen Txostenaren edukiak, Egia, Justizia, Erreparazioa eta Ez Errepikatzeko Bermeei buruzkoak.

Gure Udala aipatu Udal Sare horrekin kolaborazio eta koordinazio lanetan arituko da, une bakoitzean hartutako erabaki amankomunei jarraituz. Aurrekoarekin lotuta, inpunitatearen aurkako borrokan jokatzen duten paper garrantzitsuaz jabetuta, gizarte zibilaren erakundeekin eta biktimei nahiz bere familiartekoekin elkar-lanetan arituko da; baita Egiari, Justiziarri, Erreparazioari eta Ez Errepikatzeko Bermeei dagozkien eskubideen aitortzarendako behar diren tresna exijitzaileak artikulatzeko ere.

Arrasaten, 2018ko Urtarrilaren 23an.

ERANTSIA: Manifiesto Municipalista del 27 de octubre de 2016

Sinadura: Juan Luis Merino

